



EBAZPENA, 2023KO OTSAILAREN 2KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, HONAKO EBAZPEN HAU ALDATZEN DUENA: EBAZPENA, 2023KO URTARRILAREN 17KOA, ZUZENDARI BERARENA, ZEINAREN BIDEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ETA HEZKUNTZAKO IKUSKATZAILEEN ZERBITZUAN DAUDEN IKUSKATZAILEEN KIDEGOETAKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN ARTEKO ESTATU MAILAKO 2022/2023KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak hamalagarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14a),

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako Zuzendariarena 2022ko abenduaren 12an ebazpenaren bidez euskal autonomia erkidegoko hezkuntza administrazioaren eta hezkuntzako ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2022/2023ko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitara eman zen.

2023ko urtarrilaren 17an, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako Zuzendariaren ebazpenaren bidez euskal autonomia erkidegoko hezkuntza administrazioaren eta hezkuntzako ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2022/2023ko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara eman zen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan ezartzen duenez, administrazio publikoek ofizioz zuzendu ahal izango dituzte, edozein unetan, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak. Parte-hartzaile batzuetan baremo-akatsak antzeman direnez, zuzendu egin dira Hezkuntza Sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren II eranskinean zehaztutako baremoaren arabera.

**EBATZI DUT:**

Lehena.- 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpena aldatzea. Ebazpen horren bidez, EAEko hezkuntza-administrazioiko ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen estatu-mailako 2022/2023 lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratu zen, merezimenduen baremoarekin, eta behin betiko puntuazioa eguneratzen zaie Maria Teresa Ruiz López eta Maria Aranzazu Delgado Sola parte-hartzaileei.

- Maria Teresa Ruiz López: 4.2.1 atalean 2,8750 puntu dagozkio, guztira 71,9883 puntu lortu ditu.
- Maria Aranzazu Delgado Sola: 1.3.2 atalean 15,9163 puntu dagozkio, guztira 26,5827 puntu lortu ditu.

Bigarrena.- Interesatuak gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 2a